


PIL-PILEAN

1go. Atala

1936ko. Urterria





AURKIBIDEA

GAIA

ORRIA

* SARRERA	1
* GUTUNAK	2-3
* SORALUZEEKO TALDEAK	
FUTBOL TALDEA	4-5-6
MENDI TALDEA	7-8
* INKESTA	9-10-11
* ELKARRIZKETA (FRANK DELGADO)	12-13
* HERRIKO BITXIKERIAK	14
* BERTSOA	15
* SORALUZEEKO EUSKARA (BERBAK)	16
* DENBORAPASAK	17
* SALEROSKETAK	18
* ZELESTINAREN TXOKOA	19
* PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA	20
* LEHIAKETA	21

KAIXO LAGUN ,

Jaio berri duzuen aldizkari honek, Soraluzeko euskalzaleon lagun izan nahiko luke lehenengo momentutik.

Gure herrian gertatzen direnak azaltzea da nire helburua, euskaraz azaldu ere, dauden saltsa-maltsa guztien erakusgai sinple eta zabala izanik.

Horretarako naukazue hemen , lehenbiziko alea izanik, herriko hainbat ekintza, elkarrizketa berezi, taldeen berri eta abarrekoei buruz berriak ematen.


Zabala izan nahi dut, denon ahotsa entzuteko aukera eman eta gertatzen denaren erakusgarri bilakatu. Baina horretarako denon partehartzea ezinbestekoa izango zait, herrian zehar dauden " buzoietan " zuen ekarpenak jasoko ditudalarik.

Ale bakoitzean herriko talde edota erakunde batzuen berri eman nahi genuke, txandaka eta poliki poliki denak ezagunak egin daitezen.

Euskararen erabilpena bultzatuz eta herriko " saltsak " pil-pilean jarriz, Soraluze berpizten saiatuko naiz zuen guztion laguntzaz.

Parte hartzeko edo beste edozertarako harremana izateko idatzi :

121 Posta kutxatilara




Edo honako telefonora deitu :

75.14.34



Ongi etorria emango didazuelakoan ...

" PIL-PILEAN "



Euskarari barkamena

Bazegoen Euskal Herrian indar bat, zeinek euskaldunongatik asko borrokatzen baitzuen, euskara hain zuzen ere. Hala eta guztiz, guk ez genuen hori gehiegi baloratzen eta behin eta berriz indar hau erasotzen genuen. Nahiz eta euskarak hau jakin, ez zuen gure burua zigortzen.

Egoera honetan urteak pasatu genituen. Euskarak, egoera hau aldatzen ez zela ikusi zuenean, bizi garen gizarte honi dei bat egitea erabaki zuen eta denboraldi batez kanpora joan zen. Orduantxe, Euskal Herrian, beste indar batzuk nagusitzen joan ziren, gaztelera adibidez. Indar hauek medio euskaldunen bizitzan aldaketa garrantzitsua eman zen: gure eskubideak erasotzen zirela ikusi genuen.

Honen ondorioz, euskarak zuen garrantziaz konturatu ginen eta beste indarren aurka burrukatzeko, beraren beharra genuela ikusi genuen. Horrela, euskaldunon ordezkariak euskarari barkamena eskatzea erabaki zuen eta modu honetan zuzendu zitzaion :

Euskera, dena eman diguzun horrek. Zu gabe ez genuke nortasunik izango, ez ginateke modu egokian gizarte honetan murgilduko, ez genuke gaur egun hain aberatsa dugun kultura izango, ezin izango genuke besteekin komunikatu eta horrela gauza asko aipatuko nituzke. Horretaz gain, egon daitekeen tokirik politenetarikoa oparitu diguzu bizi ahal izateko, Euskal Herria, hain zuzen ere.

Beti ahalegindu zara guri denetarik eskaintzen. Zuk lortu duzuna ezin izango luke edozeinek lortu, adibidez : Ikastola izatea, Euskal Telebista edukitzea edo euskal egunkaria izatea. Honetaz gain, aipa zitezkeen hainbat eta hainbat gauza.

Meritu haundia duzu guran konfiantza mantentzeko orduan, zeren askotan ez baitugu merezi izan konfidantza hori. Badakigu gehiegi eman diguzula, baina guk ez dugu jakin izan zuri mesede hori itzultzen. Askotan esaten dugu gehiago lagundu behar zaitugula, baina benetako unea heltzen denean gutxi batzuk laguntzen zaituzte.

Nik uste dut gure asmoak onak direla zuri laguntza emateko orduan; gertatzen dena da asmo horiek aurrera ez ditugula eramaten. Horregatik, eskatu nahi dizugu orain arte bezala, gurekin izan duzun pazientzia manten dezazula.

Zuk azaldutako borrokarako gogoaren laurdenarekin, nahikoa izango genuke zu laguntzeko orduan. Jarraitu orain arte azaldu duzun gogo berberarekin, maite zaitugunak zuk ipinitako helburuak lortzen lagunduko zaitugu eta.

Esan dudan bezala, zuk guran jarritako konfidantza haundia izan da eta guk honi ez diogu behar zuen garrantzia eman.

Horregatik :

* Barkatu, futbolean eta saskibaloian jokatzeko orduan, mendira joateko orduan eta kirol-ekintzak antolatu ditugunean deitu ez dizugulako.

* Barkatu, merezi zenuen bezala maitatua ez izateagatik, inolako azalpenik gabe emateagatik eta behar izan nauzunean bakarrik uzteagatik.

* Barkatu, erosketak zu gabe egiteagatik, eta zure burua dendariei aurkeztu ez izateagatik.

* Barkatu zurekin ez erlazionatzeagatik eta nire ekintzak egiteko orduan zu kontutan ez izateagatik.

* Barkatu kopa bat hartzera gonbidatu eta gurekin mozkortzen ez zaitugulako utzi, baita txikiteatzerako orduan zu kontutan ez izateagatik ere.

* Barkatu lana ez emateagatik eta gure lan taldeek ez zaituztelako onartu. Baita ere, lantegian erabakiak hartzeko orduan zu kontutan ez izateagatik

* Barkatu guzti honegatik. Badakigu gehiago dagoela, baina zerrenda bukaezina izango litzateke. Konturatu gara zure beharrea gaudela eta zure laguntzarik gabe zaila izango dela denok dakiguna lortzea.

* Azkenik, eskertu denok eskuzabala izan zarelako eta denok zuregana hurbiltzeko aukera emateagatik

Euskara gutuna irakurtzerakoan zeharo poztu zen. Itxaron zitekeen bezala euskerak dena barkatu zuen.

Euskaldunak, pixkanaka-pixkanaka konturatzen hasi ziren euskerak zuen garrantziaz eta beraien bizitza arrunteko ekintzetan euskara kontutan hartzen joan ziren. Egia esan, dena berria zen eta gerta zitekeen euskaldunok berriro ere euskara ukatzea. Hau emango balitz, euskerak berriro barkatuko gintuzke ?, orain arte izan duen pazientzia edukiko luke ?; egia esan, ez dakit, baina egin diezaiogun mesede bat euskarari: ez dezagun euskara bultzatu larrialdi horren aurrean erabaki bat hartzera.

JO TA KE DENOK EUSKARAZ IDATZI ETA HITZEGIN ARTE

2

Kaixo lagun !

Gutun hau idazteko arrazoia zera da : lehengunean hitzaldi batean egon nintzen, frakaso eskolarrari buruz zen eta zure umearen arazoa etorri zitzaidan burura.

Adituak esan zigun horrelako arazoaren aurrean onena umearekin hitz egitea dela, jakitzeko zer gertatzen zaion. Umeak arazo bat eduki dezake, edozein arazo eta zure laguntza beharko du. Ez kezkatu, posible da arazo hori gainditzea. Dena dela, kontutan hartu behar duzu zure umeak beste balore eta kualitate ugari dituela.

Beraz, zeure eskuetan dago bera konturaraztea balore horiek dauzkala eta berarekin zaudela sentitu behar du.

Nire gutuna lagungarri izango duzulakoan agurtzen zaitut.

Euskaltegiko lagun bat



SORALUZEKO FUTBOL TALDEA

Gure herrian urteetan indar asko izan duen kirola, zalantzarik gabe, futbola izan da. Gaur egun ere, futbolak, pertsona askoren errekonozimendua du.

Une honetan, Soraluzeke lau talde ditu, bakoitzak 22 jokalaria dituelarik. Talde guztiek 22 fitxa egiteko aukera duten arren, badaude entrenatzera bakarrik etortzen direnak (hauek ez dute fitxarik).

Soraluzek dituen taldeak honako hauek dira : erregionala, jubenila, kadetea eta azkenik infantila.

Erregionalari dagokionez, esan behar da, talde hau Jose Luis Leon-ek zuzentzen duela. Aurreko ierroetan aipatu dugun bezala, Jose Luis Leon-ek 22 jokalaria ditu bere ardurapean; hauek 20 Soraluzeakoak dira, 1 Bergarakoa eta beste bat Elgoibarkoa.

Erregionalak denboraldi hasieran zuen helburu nagusia igotzea zen. Hau lortzea zaila dela denok dugu argi, zeren eta kontutan izan behar dugu talde berri bat osatu dela, gehienak berriak direla eta inoiz ez dutela elkarrekin jokatu. Gainera berriak diren talde guztiak elkar ezagutzeko behar dute.

Beste helburu bat, ia jokalaria guztiak herrikoak izatea zen. Honek, diru aurrezpen nabaria suposatzen du (horrela ez dago kilometroak ordaindu beharrik). Gainera Soraluzeke futbol zaleak nahiago dute herriko jendea jokatzeko ikustea eta ez kanpokoak.

Jubenilaren helburua, berriz, jokalaria sendotzea da. Kontutan izan behar dugu jokalaria hauek edozein momentutan eduki dezaketela erregionaleko ekipoan jokatzeko aukera. Hasieran talde hau, Iñigo Eguren-ek entrenatzen zuen, baina denok dakigun bezala, izan zuen istripuarengatik, ezin izan du entrenatzen jarraitu. Orain, talde hau, Javier Bolumburu-k entrenatzen du.


Kadete eta Infantil ekipoen helburuak antzerakoak direla aipa dezakegu. Kadete ekipoa Miguel Mancha-k zuzentzen du eta Infantil ekipoaren ardura, berriz, Alejandro Luis-ek dauka. Ekipo hauen helburu bakarra futboleko jokatzeko hasi nahi duten haurrei aukera bat ematea da eta nork daki inoiz ez den futbol izar bat sortzen gure herrian.

Ikus dezakegunez, Soraluze F.T-ak garrantzi haundia du gure herrian. Hori dela eta, Soraluze F.T-ko zuzendaritzak herritar guztiei laguntza eskatu nahi die arlo guztietan: bazkide berriak egiten, errifak erosten, ekipoak animatzen ...




SORALUZE F.T




 **LEON**
(Entrenatzailca)




 **ENRIKE**
(Atezaina)




 **UNAMUNO**
(Atezaina)




 **LUIS**
(Atzelaria)




 **IÑAKI**
(Atzelaria)




 **LOSADA**
(Atzelaria)




 **ANDIMA**
(Atzelaria)




 **TORNOS**
(Erdilaria)




 **JOSEBA**
(Erdilaria)




 **SODUPE**
(Erdilaria)




 **PATXI**
(Erdilaria)




 **MARCOS**
(Erdilaria)




 **TOÑIN**
(Erdilaria)




 **ASIER**
(Aurrelaria)



 **JUAN**
(Aurrelaria)



 **OIER**
(Aurrelaria)



SORALUZEKO MENDI TALDEA

Soraluzeko Kirol Elkarteak 50 urte bete ditu. Talde ezberdinez osatua egon arren talderik adierazgarrienetariko Mendi Taldea da. Honek, azken hamarkadetan mendia-
rengatik eginiko lana oso handia izan da; besteak beste, iturrien berrikuntza, mendi
garbiketa, bidezidorren garbiketa, ibilbide ezberdinen seinalazioa etab.

Mendi Taldeak eginiko irteera kopurua zenbatzea ezinezko lana izango litzateke,
hauek egin dituzten irteera eta ekintzak asko izan baitira. Gaur egun ere Mendi Taldea
zuzentzen dutenek irteerak antolatzen dituzte igandeetan.

Mendi Taldeak etapa ezberdinak jasan izan ditu. Horrela, batzuk aipatzearren, esan
behar da Mendi Taldeak bere lokala lehenengo Meltxorrenean , gero Txoko tabernan
eta gero Abade etxean zuela eta sute baten ondorioz bere egoitza Errebal Kalera era-
man behar izan zutela. Sute honetan hainbat dokumentu eta materiale erre ziren.


Etapa berri honi indar haundiarekin hasi zitzaion aurre egiten, baina arrazoi ezberdi-
nengatik talde honetako partaideek taldea utzi zuten. Hauen lekua mendia asko maite
duten gazte batzuk hartu zuten eta aipatzekoa da beraien lana izugarria izan dela.

Mendi Taldeak antolatzen duen egunik esanguratsuena " Finalista Eguna " da. Egun
hau Maiatzeko azkenengo igandean ospatzen da eta Soraluzeko mendizale guztiak
Urkiatzelaiko bordan biltzen dira. Egun honetan sari banaketa egiten da Soraluzeko
mendizaleen artean. Esan beharra dago egun honetan egoten den giroa aparta izaten
dela.



" Finalista Eguna " orain dela urte batzu

Amaitzeko aipatu behar da, Mendi Taldekoek beraien ideiak beti hitzen bitartez baino, ekintzen bitartez adierazi izan dituztela. Adibide gisa, jarraian beraien idatzitako bertsoa zuenganatu nahi izan dugu.



*Bizkarrian pardela
eskuan makila
aldapaz gora doaz
gisa talde pilla.*

*Kaleari utzi ta
haizearen billa*

**ZALETASUN EDER HAU
ZABALDU DEDILLA !**

Mendi Taldeko 4 arduradunak:


- * Zigor Gallastegui
- * Iñaki Ruiz
- * Iakes Elgeta
- * Ion Elizburu



INKESTA



ZE ESKATU DOTSAZU URTE BARRIXARI ?




HILARIO ITURBE

75 URTE

ASPALDI JUBILATUA

Lehenengo bakia danontzako.
Neretzako 18 urte eukitzia.




JABIER AZKONA

48 URTE

ANTOLAKETA TEKNIKOA

Gauza asko eskatuko nitxuan, ba-
tez be Euskal Herri osorako ba-
kia.




ENEKO GALLASTEGUI

21 URTE

LANGABETUA

Ezebe ondiokan. Loterixia toka-
tzia trankil bizitzeko lain, lanik
egin gabe. Loterixan 150 peze-
ta tokau jataz baina 150.000 pe-
zetakin hilian eta betirako kon-
formauko nintzan. Maitasuna eta
osasuna ez dot bihar, hori
badaukat.



ARANTZI PEÑALBA

25 URTE

ADMINISTRAZIOA

Ez dot eskatu ezebe, ondiok ez dot
idatzi kartia. Oporrak eska-
tuko nitxuan, hilabete bat edo,
bidai bat eitxeko, Kubara juateko,
euzkitxara eta Kuba ezagutzera be.

INKESTA (2)

ZE ESKATU DOTSAZU URTE BARRIXARI ?



JUAN LUIS UGALDE

44 URTE

PRODUKZIO BURUA

Ostras! Zoriontasuna denentzat. Neu eta neure ingurukoak zori-ontsuak izatea nahiko nuke. Egunero ahalegintzen gara gure ingurukoak zoriontsuak izaten.



EDURNE RUIZ

18 URTE

SUKALDARIA

Ezebez. Kotxe bat, ja, ja, ja ! Marka konkretu bat ez, kotxe txiki bat lanerako. Orain dela gutxi atera dot karneta eta. Osasuna ere bai.



IKER JAUREGI

9 URTE

IKASLEA (4.MAILA)

Futbitoko zapatilak, Adidas, Rebook. Ez dot idatzi. Oraingoz horri bakarrik.

INKESTA (3)

ZE ESKATU DOTSAZU URTE BARRIXARI ?



OLATZ ANDRES

13 URTE

IKASLEA (8.MAILA)

Arropak eta dirua gehixenbat eta booo....! Ez dakit. Oraingoz no-bixorik ez. Eta ikasketak ondo joatia. Bakia egotia munduan.



MARIA URIZAR

76 URTE

ETXEKOANDRIA

Euskal Herrixan pakia, politiko guztiak ein deixela berba ondo eta negoziiau bere artian, pakea bein eta betiko Euskal Herrixan.



MARIAN BEGIL

35 URTE

ETXEKOANDRIA

Osasuna, maitasuna eta dirua, di-ru dexente, miloi asko. Bidaia eitxeke eta hobeto bizitzeko. Ja, ja, ja...! Zer egoista ezta?

*** EGILEAK :**

- * Amaia Aguirre
- * Ainhoa Artozabal
- * Maite Etxeberria
- * Oihana Garitano
- * Maitane Maiztegi



1. ZELAKOA IZAN ZEN ZURE HASIERA ?

Musika konposatzen hamabost urtekin hasi nintzen. Baina kitarra betidanik jo izan dut. Unibertsitatean ikasten nengoela, 75ean, " trova cubana " berriaren sorreran parte hartu nuen. Sasoi hartan nahiago nituen mobida kulturalak ikasketak baino. 79an sartu nintzen ofizialki " trova cubana " berrian, ordurako kobratzen bainuen egile eskubideengatik. Hala ere, benetan 85ean hasi nintzen produktora batek deitu ninduenean.

2. ABESTIAK ABESTU AURRETIK BETI KOMENTATZEN DITUZU. ZEIN DA HORREN HELBURUA ?

Jendearengana zuzenean heltzea kantautore guztien ezaugarria da nire ustez. Oso gogorra litzateke aurkezle batek esatea " gabon, gaur Frank Delgadoren emanaldia izango duzue eta hasteko entzungo duzue abesti hau eta hau, ... ". Nire ustez, kantautore batek kodigo batzuk bota behar ditu entzuleak mezua harrapatzeko. Batzuetan pasatu ere egiten naiz baina...

3. ZE EZBERDINTASUN SOMATZEN DUZU ENTZULE ASKORI ZUZENDUTAKO KANTALDI BATEN ETA ENTZULE GUTXIRI ZUZENDUTAKO KANTALDI BATEN ARTEAN ?

Denoi gustatzen zaigu milaka entzulek entzutea, baina benetan arduratzen nauena aurrean daudenak nire mezua ulertzea da, gustora egotea eta hori guztia nik sentitzea. Garrantzitsua ez da beraz, 5.000 edo 5 lagun izatea aurrean baizik eta elkarren arteko lotura magikoa sentitu ahal izatea. Beharbada jaialdi handi batean elkarren arteko banaketa soinu on

batek ordezkaz dezake, edota iluminazio on batek, baina berriz diot niretzat interesgarriena elkar ulertze hori dela. Nahiz eta gogorragoa eta nekagarriago izan, nahiago dut leku txikiak ezagutu eta bertako jendea egiten dudana gustatzen zaiola ikusi hiri garrantzitsuetara joan eta hau barik gelditzea baino.

Silviorekin duela 3 urte izan nuen elkarrizketa batean gauza bera esaten zidan, nahiz eta bere kaso oso ezberdina izan. Ez litzaidake gustatuko etxe diskografiko bati lotua egoitea, nahiko eskarmentu dut eta ez nuke jasango.

4. ZE ABESLARIREKIN GUSTATUKO LITZAIZUKE ABESTEA BEREZIKI ETA ORAIN ARTE EZ DUZU BERAREKIN ABESTEKO AUKERARIK IZAN ?

Uste dut kantautore gutxi izango dela horrelako kasoan. Pentsatzen dut galderarekin esan nahi duzuna dela berarekin aurrez aurre kantatzea; baina niretzat beste batekin abestea ez da hori bakarrik; niretzat onena litzateke bere musika kasete batean jarri eta elkarrekin abestea, horrela ikusten da berak esan nahi duena ulertu duzula. Hori da benetan berarekin kantatzea.

5. ZE IRITZI DUZU EUSKAL MUSIKARI BURUZ ? EZAGUTZEN AL DUZU ABESLARI EUSKALDUNIK ?

Oso jende ona dagoela uste dut. Adibidez Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bizente Martinezek atera duten azken diskoa. Diska honen letrak itzuliak irakurtzeko aukera izan nuen eta zoragarria iruditu zitzaidan jendeak horrelakoak egitea. Beste batzuen artean Kortatu, La Polla, Kojon Prieto eta horrelakoak gustoko ditut.

Kantautoreen artean oso interesgarria iruditzen zait Mikel Laboa, eta gazteen artean adiskidetasun ederra dut Mikel Markezekin Kuban elkarrekin bion abestiak abestu genituenetik. Ikus dezakezunez, nahiko ezagutzen dut Euskal Musika. Laboaren " Hegoak ebaki banizkio " abestia nire emanaldietan sartzearen arrazoia Kuban pelikula baten entzun eta gustatu ondoren ikastea izan zen.

Normalean ez zait gustatzen zer kantatzen dudana ez jakitea. Doinuagatik gustokoa izan dezakezu baina nik nahiago dut kantatzen dudana zer den jakitea. Suposatzen dut Euskal Herrian HEGOAK entzutea Kuban GUANTANAMERA entzutea bezalakoxea izango dela.

Euskadira natorren laugarren aldia da eta gauzak ikasten ari naiz. Abesti batzuk ere badi-tut itzulita eta gustatuko litzaidake denbora izatea euskera ikasteko, ez euskera izateagatik, gauza bera litzateke galegoa, katalana edo bretoa ikastea. Euskaldunei gustatzen zaie egiten dudana eta abestera etortzea gustatzen zait.

6. ZE IRITZI DARAMAZU SORALUZERI BURUZ ? EDUKIKO DUGU ZURE MUSIKAZ GOZATZEKO AUKERA BERRIRIK SORALUZEN ?

Jakina itzuliko naizela Euskadira baita Soraluzeera ere, Soraluzeko imagina ona daukat,
KONTXO SORALUZEREKIN !!!

PEDRO DEZA



PLAENTXIKO BITXIKERIAK

Bitxikeria hau Boskoitxi baserrian gertatu zen duela 9 urte. Bertan lau hankako txitatxoa jaio ondoren ez zuela luzaro iraungo pentsatu zuten, baina oker zeuden oilaskoa urte batez bizi izan baitzen. Honek lau hanka zituen, bi normalak eta beste bi atzekaldean airean ez ziotenak traba besterik egiten.

Itxuraz nahiko itsusia zen oilasko honek arazo ugari izan zituen oilategian. Soberan zitu- en hankak edozein lekutan trabatzen zitzaizkiolako eta hori gutxi balitz beste oilasko eta oiloek berehala baztertu zuten atzeko hanketan mokoka eginez. Honen ondorioz kaiola baten jarri behar izan zuten bera bakarrik egun baten hilda aurkitu zuten arte.

Harrez geroztik ez omen da horrelako bitxikeriarik gertatu, hemen ez behintzat. Dena den badakigu Plaentxian makinatxo bat bitxikeria badaudela kontatzeko! Hauen berri izateko aukera izango duzu hurrengo alea irakurriz gero, beraz ERNE!



KORTAZAR

DOINUA : Amonatxo

NEURRIA : Zortziko txikia

1

Mendi guztia hondatzen
ematen du pena
Muneta inguru hori
Antenaz da dena
ixilik egiteko
jokoa zekena
Karakaten ipini
behar dute antena.

2

Euskaldunok ez gaude
aspaldin pozikan
elkar zaintzen badugu
nahikoa lanikan
kontrola handik eta
kontrola hortikan
antena sar zazue
ipurtzulotikan.

3

Gauza bat nik nahi nuke
orain garbi utzi
eta Euskaldun denari
noski erakutsi
zeruko uhinetan
erdara nagusi
antena asko baina
euskaratik gutxi.

4

Hitz gutxitan egin dut
dena garbi azaldu
hedabideak ere
gaituzte zapaldu
erdaldunen eskutan
gara gu apaldu
Demokrazia honekin
Euskaldunak galdu.

5

Euskarak jasotzen du
egurra ugari
bada egon gaitezen
Euskaldunok adi
antearik gabeko
mezua bidali
erasoei erantzunez
argi eta garbi.

6

Edertasun guztiak
zikindu egin behar
Euskara zapaldu eta
mendiak su ta gar
uhinen bidez zabaldu
edo egin dehiadar
erakutsiz barneko
askatasun sukar.

PLAENTXIKO BERBAK

* AFARIKETAN IBILI: Jolasean ibili

* Egoera: Normalean umeak bere kabuz janari asuntoan nagusiek egiten dutenaren plantak eginez jolastu.

* Esaldia: Nun dabiz umiak? Salonazpiko maixan afariketan ibiliko dia.

* AMAMA IZAN: Mauka, " Txoilua "

* Egoera: Zerbait oso ona gertatzen zaizunean besteak botatzen dizun esaera.

* Esaldia: A: " Eskeini dosten lanpostu barrixan 300.000 pzta. irabaziko ditzut hilero "

B:" Hori dok/n amama hori !!!

* APROPOS EGIN:

- Bi esanahi dauzka:

1) Nahita: Zentzu txarrean (gaizki nahian)

* Egoera: Zerbait kaltegarria egiten denean eta gaizki nahian gainera.

* Esaldia: Txarri honek atia apropos itxi dosta etxian ez sartzeko!

2) Brometan: Zentzu onean (jolastu nahian)

* Egoera: Jolastu nahian eta asmo txarrik gabe egindakoa.

* Esaldia: Ez zaitxe hola jarri, txotxolu hori, apropos esan dotsu ta!!!

* AFARI LEGEA IZAN: Afaldu afaltzeagatik, goserik gabe

* Esaldia: " Honezkero izango dia 9ak eta afari legia ein biakou "

* AITAREN BATEN: Berehala, segituan.

* Esaldia: " Hi, juan hari kalera ta etorri hari aitxiaren baten , eh"

SALEROSKETAK



ETXEBIZITZAK

* Etxebizitza salgai. Altzariekin edo gabe. 80 m², nahiko berria eta igogailuduna. Gipuzkoa etorbidea, 25.

Tf: 751482

* Etxebizitza esku-eskura.

Tf: 751079

* Etxebizitza salgai (Duplexa), 3 gela, 2 bainugela, egongela. Herri erdi-erdian.

* Pisua salgai, Gabolatx 23.

Tf: 751009

* Estazio kalean pisua salgai. Altzariekin. Estazio kalea 2, Zbka. Merke-merkea.

Tf: 753037/700039

* Osintxun etxea eta garagea salgai. Biak elkarrekin edota aparte. Etxea guztiz berritua dago eta altzariz atondua.

Tf: 765598/761727

* Pisua salgai Olan. Barrutik eta kanpotik berritua. Altzari eta guzti. Oso merkea.

Tf: 751774

edo Errebal kalean 4-1.

* Etxea salgai. 3 gela, egongela, bainugela, sukalde hornitua, trasteroa eta terraza. Prezio egoki-egokia.

Tf: 752384 edo 604073 (gauzez)

* Berritutako etxea salgai. Kalera eta eguzkitara ematen du.

Tf: 751079



LANA

* Titulodun irakasleak, O.H.O. Klase partikularrak emango lituzke

Tf: 752009

* O.H.O, L.H, B.B.B, Frantsez eta Ingelesko partikularrak. Merke-merke.

Tf: 199346 (gauzez)

* Esperientzia duen neskak etxeko lanak egiteko eskeintzen du bere burua.

Tf: 751155

* Piano klaseak ematen dira (irakasle tituloduna). Partikularrak eta norberaren etxean ere bai.

Tf: 103814

* Eladio Blanco Torres: Josteko makinak konpontzen ditu.

Urbite plaza 1-3. 20870 Elgoibar.

Tf: 742982

* Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest dagoen emakumea nauzu.

Tf: 752386

* O.H.O, B.B.B, L.H eta mekanografiako klaseak ematen dira.

Tf: 751084

Zuk ere atal honetan agertu nahi baduzu 121 Posta Kutxatilara idatz ezazu edo tabernetan dauden aldizkariaren buzoietan sar ezazu zeure mezua (edozein salerosketa mota izan daiteke).



PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA



ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

OSASUNA : Hori da hori odol beroa. Negu honetan berogailu gisa hartuko zaituzte.

DIRUA : Saiatu, saiatu eta saiatu. Ez duzu askorik lortuko halare.

MAITASUNA: Zeure azukre koskorrak mimoak egitera kondentatu zaitu, kondena atsegina baina !



TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

OSASUNA : Futbol taldearen antzera zabilta, berdindu ezinik. Utzi kafeari.

DIRUA : Espektatiba ederra duzu udaberrirarte! aprobezta ezazu, eta gerokoak geroago.

MAITASUNA : Epehasun bila zabil-tzan sasoi honetan, urrutiratu egingo zaizu. Imana erabili eta ez utzi.



GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

OSASUNA : Eskuak bero bero eta hankak hotzak, kontuz gripearekin. Egin ezazu kirola.

DIRUA : Hainbeste negar egiteari utzi eta daukazuna ondo erabiltzen hasi, pribilegiatu hori !

MAITASUNA : Maite duzu, maite eta elkarrekin konpondu ezinik. Atera zeure burutik zeu zarena, ez eskutatu.





CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

OSASUNA : Mukiak angula balira ederra negozioa ! Kontuz haize egokituarekin.

DIRUA: Horrenbestean ere ! Lasaitasun garaiak heldu zaizkizu. Zorrak kitatu.

MAITASUNA :  Larrosa kolorez jantzita, larrosa kolorez jantzi-ta ... 






LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

OSASUNA : Atsedena behar duzula diozu, baina, ezer ez duzu egiten barren!

DIRUA : Pilatu, erakar, gorde; zuhur hori ! gastatu zapatetan bederen !

MAITASUNA :  San Simon eta San Juda, joan  zen uda eta negua heldu da  Elkarrekin epel epelean eeehh....



VIRGO

Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra

OSASUNA : Stressari aurre egiteko, tila, kamamila eta menta. Eutsi zeure berriketa gogoari.

DIRUA : Jokoetan suertetsua izango zara, baina ez xahutu horretan duzun guztia !

MAITASUNA : Atzotik dabilkizun hori ez da beste munduko gauza, baina ezer baino hobe, txo ! fio !



LIBRA

Irailaren 24etik Urriaren 23ra

OSASUNA : Gogortuta zaude egonean. Etorri neure gotorlekuraino, oinez !






DIRUA : Esne mamitan bizi zara, denetik duzu eta gainera Olentzero ere zure lagun !

MAITASUNA : Irrifarre honen ostian duzuna aterako bazenu ... Sex-Sinbolera bidean.



SCORPIO

Urriaren 24etik Azaroaren 22ra

OSASUNA :  Ehurra teilatuan  zapia lepuan  degu aurtengo neguan  ibili beharko  San Blas opilak bai gozoak !

DIRUA : Lan baldintza eskasak eta diruz urri. Lana aldatzeko eskeintzak irakurri. MAITASUNA : Begi horiekin ziztada jo eta menperatuta daukazu .

Zenbakia "69"a.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21ra

OSASUNA : Dutzak ez du azalik gastatzen, garbitu, apaindu eta ... ikusiko duzu nor zaren !

DIRUA : Aberasteko modu bakarra duzu, aberats bat harrapatu.

MAITASUNA : Zure kuttun txiroa maitatu, maitale aberatsa zaindu !



CAPRICORNIUS

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra

OSASUNA : Griparen aurkako txertoa hartu. Haize boladek eraman zaitzakete. Gozoki gutxiago eta fruta gehiago.

DIRUA : Lanik ezean zatorz Pago-bedeinkatura eta txondorrek egin. Olentzero ere hemen inguruan dabil.

MAITASUNA : Lorak dituzu maite, eta zuhaitzak ... Eta zu, nork maite zaitu ?



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

OSASUNA : Dena alde duzu ! Abestu, irri egin eta gozatu. Alaitasuna da sendabiderik onena.

DIRUA : Gehiago kobratzeko sasoiak etor litezke, baina ez lan gutxiago egitekoak.

MAITASUNA: Hain gogotsu, hain ero, plazerra bero-bero; mimoz bortxatu ezker, pozik nengoke, Zalamera !



PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

OSASUNA: Zure ametsetako gorputz lirain ederra pikutara botako duzu Gabonetan horrenbeste jan-edanda...

DIRUA : Bai suertea izan duzuna Gabonetako Loterian ! merkealdiak direla eta, aprobeztratu !

MAITASUNA: Printze/sa urdinaren ezean, langile "gorria"ri begira jarri behar zenuke eta astotik jausi lehenbailen.

LEHIAKETA



EZETZ ASMATU ZEINTZUK DIREN !!!

Lehiaketa dibertigarri honetan parte hartzeko "BLUE-BELL" taldekoen izena eta abizenak asmatu behar dituzu.

ERANTZUNA BIDALI EZAZU LEHENBAILEN 121 POSTA KUTXATILARA
SARIA: Erantzun zuzena ematen duten guztien artean zozketa egingo da eta honek opari eder bat jasoko du.



ERANTZUNA _____

ZURE IZEN ABIZENAK _____


ZURE TELEFONOA _____

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

- A) Letra-zopa: 1.Guraizeak 2.Gogaitu 3.Txermena 4.Galerazi 5.Ohitura 6.Amodioa
B) Bokalak Iheska: Zertarako mugak jarri / Mikel Markez
C) Asmakizuna: Zorrixa
D) Xakea: 1.....e6xe3 +, 2. d3xe3 (2.f1xe3, g2-g1,3. d3-f1,e8xe3),e8xe3 3. f1xe3, g2-g1
4. e3-f1, g7-c3 5. b1-b2, g1-g2 !! 0-1

+ : jakea x : jatea !! : jokaldi oso ona

Zergekin burutik eginda bazabiltza, erabil ezazu geurea horiek murrizteko.



Aldiro-aldiri zita desatsegin bat izaten duzu zergekin. Gehien mintzen zaituena, seguraski, beste batzuek nola ebitatzen dituzten ikustea izango den arren.

Zoritxarrez, hori lortzeko erabiltzen diren prozedurak ez daude edonoren esku. Horrexegatik, hain zuzen ere, Euskadiko Kutxak aholkularitza fiskalerako plana

jartzen du zure esku. Plan hori sormenean eta eragin-kortasunean oinarrituta dago eta zeuri ere diru gutxiago ordaintzeko formularik egokiena aurkitzen

laguntzeko erabiliko dugu. Informa zaitez Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan edo 901 333 444 telefonora deituta, gaueko 10ak arte.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA